



AKTA

Aiarako Kuadrillako **KUADRILLAKO BATZARRAK** eginiko **ohiko bilkurakoa (545/2020-A zenbakidun jurisdikzio-babeseko auzi-errekurtsoaren epaia betez)**.

2022ko URTARRILAREN 22a

Laudioko Udalaren udaletxeko **osoko bilkuren aretoan, 14:04** direnean, **ohiko bilkurari** hasiera eman zaio, **lehen deialdian, Encina Castresana Astarloa Kuadrillako Presidentea** buru dela, eta jarraian zerrendatzen diren batzarkideak bertaratuta. Gianfranco Ghio Alonso jauna, behean sinatzen duena, aritu da behin-behineko idazkari-lanetan.

Honako batzarkide jaun-andre hauek bertaratu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA (EAJ-PNV)
Ander AÑIBARRO MAESTRE (EAJ-PNV)
Andoni RODRÍGUEZ ORÚE (EAJ-PNV)
Iñigo PINEDO VADILLO (EAJ-PNV)
Montserrat ANGULO SOLLOA (EAJ-PNV)
Txerra MOLINUEVO LAÑA (EAJ-PNV)
Nuria LÓPEZ LUMBRERAS (EAJ-PNV)
Alberto ARTETXE VICENTE (EAJ-PNV)
Ixone SARATXAGA IBARRETXE (EAJ-PNV)
Juan José ESCUZA DEL CAMPO (EAJ-PNV)
Gentza ALAMILLO UDAETA (EAJ-PNV)
Eva MARQUÍNEZ BLANCO (EAJ-PNV)
Aitor BURGOA MARTÍNEZ (EH-BILDU)
Nagore GOMARA PICAZA (EH-BILDU)
Irene ITURBE ERRASTI (EH-BILDU)
Iñaki IBARLUZEA ORTUETA (EH-BILDU)
Karmele POBLACIÓN MARTÍNEZ (EH-BILDU)
Álvaro BARRIOS MEDINA (OMNIA)
David ROMERO CAMPOS (PSE-EE)
María Dolores MURIEL AROCA (PSE-EE)
Sergio TATO EGUREN (OKONDO AURRERA)

Ez dira etorri, eta ezin etorria adierazi dute, honako batzarkide hauek:

Maite CORTÁZAR AGÜERA (EAJ-PNV)
Joseba VIVANCO RETES (EH-BILDU)
Naiara OTAOLA GONZÁLEZ (EH-BILDU)



Arkaitz SAN JOSÉ MARTÍNEZ (EH-BILDU)
Maitane SALUTREGI GARDEAZABAL (EH-BILDU)
Jon BERGANZA URRUELA (EH-BILDU)
Nerea GONZÁLEZ GARCÍA (OMNIA)
Iratxe PARRO UZQUIANO (AIARA BATUZ)

Artetxe Vicente jauna 14:05 direnean bertaratu da, 1. puntua jorratzen ari zirenean.

Kuadrillako Presidenteak hasiera eman dio bilkurari, **lehen deialdian, 14:04 direnean**, Idazkariak Kuadrillak arautzen dituen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.c) artikuluari dagokionez (lege hori, besteak beste, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatu zuen), bilera abiarazi ahal izateko quoruma dela egiaztatu ondoren, eta saiorako ezarritako Aztergaien Zerrendari jarraitu zaio.

1.- 545/2020-A ZENBAKIDUN JURISDIKZIO BABESEKO AUZI-ERREKURTSOAREN EPAIAREN BERRI EMATEA. AUZI HORI TALDE POLITIKO BATZARKIDE HAUEK AURKEZTU ZUTEN: OMNIA, OKONDO AURRERA ETA AIARA BATUZ

Presidenteak epai horren epaitza irakurri du. Epai hori I. ERANSKIN izenaz txertatua dago deialdian, dekretu bidez onetsitako eta epaiak bertan behera utzitako akordioekin batera. Kuadrillako Batzarra egiteko data aldatzea erabaki zenean, ezohiko egoera batean geunden, Covid-19aren ondorioz. Kuadrillako lege-zerbitzuek erabakirik egokiena zela pentsatu zuten.

Barrios Medina jaunak (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) Presidenteari galdetu dio zer sentitu duen epai hori jasotzean. Bilkura berean akatsa zuzentzeko aukera eman zen, baina ez zen egin, eta Presidenteari galdetu dio zer pentsatzen duen bilkura hau egiteak dakartzan kostu pertsonalen inguruan; hain zuzen ere, herritarrentzat auzi-eskeak eta bilkura egiteak izango duten kostuaren eta eskatzaileek jasandako ondare-arriskuaren inguruan. Denon Presidentea dela gogorarazi dio, eta ez bakarrik EAJ eta PSErena.

Añibarro Maestre jaunak (EAJ/PNV talde politikoko kide gisa), adierazi du ez dela galdera egiteko une egokia.

Presidenteak erantzun du hartutako erabakia teknikoa izan zela, eta hark ez zuela ezer esaterik. Ez da asmo txarrez egin. Adierazi du ez diola trabarik jarriko parte hartzeari, eta jendeak eta Talde Batzarkideek Kuadrillan parte hartzea nahi duela. Epaiak ohiko bilkura egiteko agindu du, eta horregatik egin da bilkura hau.



Barrios Medina jaunak (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) aurrekariak eta epaiaren zentzugabekeria azaldu ditu, bai eta egungo egoerarena eta eragingo dituen kostuena ere. Hamasei aldiz aipatu dira gai horiek Kuadrillan. Erraza da epaitegian errekurtsioa aurkeztea, kostua beti pertsona berei egokitzen zaienean. Kasu hau ez da bakana izan, baina kasu honetan bakarrik irabazi dute aurkeztutako errekurtsioa. Batzordeetan gertatutakoak gogorarazi ditu, eta adierazi du interesa ez dela ekonomikoa izan. Aldiz, haien eskubideetan zuten interesa, horregatik eskatu zuten 5 euroko kalte-ordaina bakarrik.

Ez du eskubide gutxiagorik gutxiengoan dagoenak. Tokiko Gobernu-Batzarra, batzordeak eta horien presidentetzak legalak dira, baina gehiengo baino ez dute kontuan hartzen. EAJ eta PSEri eskatu dio haien ekiteko moduaren inguruan hausnartzeko. Gehiengoan demokrazia ongi dago, baina hemen gertatzen dena ez da demokrazia.

Modu kritikoa eman ditu azalpenak. Ez da gauza bera erabakiak hartzea eta erabaki okerrak zuzentzea. Presidenteari hamabost eguneko epea eman diote hausnar dezan eta dimisioa aurkez dezan. Ez da bidezkoa akatsa Kuadrillako langile teknikoei egotea. Batzarra errepikatzeak, haien kalkuluen arabera, 10.000,00 euroko kostua izango du. Presidenteak ez badu dimisioa aurkeztea egokitzen jotzen, auzi-eskea aurkeztu zuten taldeen tonua alda daiteke.

Romero Campos jaunak (SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK talde politikoko bozeramaile gisa) adierazi du ez dela epaiaren xehetasunetan sartuko, obeditu egingo dutela. Ez dago gehiengo osorik. Aldiz, negoziazioak eta akordioak daude. OMNIAk izan dezakeen arazoa da ez dela gai hitz egiteko eta akordioak lortzeko. Laudion koalizio-gobernua dago, eta horrek programa bat du. OMNIAk gobernu-taldearekin negoziatu du. Ez dute PSE nahi dutenarekin eta interesatzen zaienarekin lotu behar. Izan ere, hori demagogia da.

Alamillo Udatea jaunak (EAJ/PNV talde politikoko bozeramaile gisa) adierazi du OMNIA talde politikoko batzarkidearen azalpena burugabekeria hutsa dela, eta egin duen eskaera mehatxua dela. EAJk epaiari men egin dio.

Barrios Medina jaunak (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) adierazi du ez duela EAJko ordezkariekin eztabaidan hasi nahi, eta ez duela demagogiaz hitz egingo.

Alamillo Udatea jaunak (EAJ/PNV talde politikoko bozeramaile gisa) erantzun dio Batzarrean inor ez dela bozeramailea, baizik eta talde politikoko ordezkaria.

Eztabaida gehiago luzatu ez denez, hurrengo puntura pasatu gara.



2.- ONETSITAKO AZKEN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Presidenteak azken bilkuratik hona onetsitako Presidentzia-Dekretuen berri eman du, eta hauek dira:

76/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, azaroaren 23koa; EEP Likidazioa 20-21

77/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, azaroaren 24koa; telebistaren erosketaren adjudikazioa

78/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, azaroaren 24koa; standaren diseinuaren eta txakolinaren ibilbidearen adjudikazioa

79/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, azaroaren 24koa; Vital Fundazioaren ekintzailtza-jardunaldiaren adjudikazioa

80/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, azaroaren 29koa; azaroko soldata

81/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, abenduaren 15koa; abenduko aparteko ordainsaria

82/2021 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, abenduaren 23koa; abenduko soldata

1/2022 PRESIDENTETZA-DEKRETUA, urtarrilaren 13koa; sare sozialen lizitazioa onestea

3.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Barrios Medina jaunak (OMNIA talde politikoko bozeramaile gisa) azaldu du puntu hau eguneroko kudeaketaren inguruko galderak egiteko dela. Ez du zentzurik 2020ko uztailan egin beharreko batzarrean egin behar ziren galderak gaur egiterik. Presidenteari galdetu dio zer moduz joan den FITUR azoka, zenbat kostatu den eta zer egin duten han.

Presidenteak erantzun dio ez duela bidaiaren kostua eskura, aurreko egunean azken orduan itzuli zelako. Gastu guztiak dituenean, emango du horien berri. Bidaia trenez egin dute ekonomia sustapeneko teknikariak, turismoan laguntza teknikoaren zerbitzua ematen duen pertsonak eta presidenteak berak. Bilera bat izan dute Txakolinaren Ibilbidearen egiaztapena antolatzeko, beste ibilbide batzuek zer eskaintzen duten ikusteko, gure Kuadrillari Euskadiko standean babes emateko, azokan aurkeztutako liburuxka turistikoak ikusteko, Nerbioiko Parke Linealean egin daitezkeen ekintza posibleak baloratzeko... Laburbilduz, gure eskualdeari babes emateko.

Alamillo Udatea jaunak (EAJ/PNV talde politikoko bozeramaile gisa), galdera gehiago ez dagoenez, Kuadrillako Presidenteari babes oso eta argia emanez bukatu nahi izan du bilkura.



Eta aztertzeke beste gairik ez dagoenez, lege-aginduz, goian adierazitako eguneko **14:25** direnean, bukatutzat eman da bilkura. Akta hau presidente andreak sinatu du eta nik, behin-behineko idazkaria naizenez, sinatu eta egiaztatu dut.

PRESIDENTEA: Izpta.: Encina Castresana Astarloa

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA: Izpta.: Gianfranco Ghiro Alonso

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**